

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA
TEKNOLOGI ELKARTEGIAREN ARTEKO
HITZARMENA BIC BIZKAIA BIZKAIKO PARKE
TEKNOLOGIKOAN PROIEKTUA GARATZEKO**

**CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN
FORAL DE BIZKAIA Y EL PARQUE
TECNOLÓGICO PARA EL DESARROLLO
DEL PROYECTO BIC BIZKAIA EN PARQUE
TECNOLÓGICO DE BIZKAIA**

BILDU DIRENAK

Ainara Basurko Urkiri, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta beraren ordezkari gisa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2025eko maiatzaren 29ko Erabakiaren bidez emandako ahalmenik erabiliz.

Itziar Epalza Urkiaga, Parque Tecnológico - Teknologia Elkartegia, S.A.ko zuzendari nagusia den aldetik (IFK: A48177752), eta haren ordezkari gisa, egintza honetarako behar beste ahalmen dituela, Miguel Ángel Martínez Urroz Bilboko notarioaren aurrean 2024ko azaroaren 7an egiletsitako ahalordetze-eskriaturatik ondorioztatzen denez. Protokoloko 2.897 zenbakia du eskritura horrek.

Alderdiek hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta ondorioz, honako hau

REUNIDAS

Ainara Basurko Urkiri, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, actuando en virtud de las facultades otorgadas mediante Acuerdo de la Diputación Foral de fecha 29 de mayo de 2025.

Itziar Epalza Urkiaga, en su calidad de directora general de Parque Tecnológico - Teknologia Elkartegia, S.A., con CIF A48177752, y en representación de la misma, con facultades suficientes para este acto, tal como se desprende de la escritura de apoderamiento, otorgada ante el Notario de Bilbao D. Miguel Ángel Martínez Urroz con fecha 7 de noviembre de 2024 y signada con el nº 2.897 de su protocolo.

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud

ADIERAZTEN DUTE:

EXPONEN

LEHENENGOA

Enpresa txiki eta ertainei, ekintzailetzari, enplegarritasunaren sustapenari eta, oro har, gure lurraldeko sare ekonomiko osoari laguntzeko politika publikoak Bizkaiko Foru Aldundiaren berizgarri dira.

PRIMERO

Las políticas públicas de apoyo a las pymes, el emprendimiento y al fomento de la empleabilidad y, en general, a todo el tejido económico de nuestro territorio son seña de identidad de la Diputación Foral de Bizkaia.



Bizkaia lurralde berritzaile eta lehiakor bihurtzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak lehentasunezko laguntza ematen die industriari eta zerbitzu aurreratuei, aberastasuna eta lanpostu egonkorrak eta kalitatezkoak sortzeko gaitasun handia duelako, eta Bizkairako estrategikoak diren sektoreen indarguneak indartzen dituelako, hala nola automobilgintza, aeronautika, energia eta osasuna. Funtsezkoa da, beraz, Bizkaiko sistema zientifiko-teknologikoa indartzea eta ezagutza zientifiko-teknologikoa sortzea, erakartzea eta enpresei transferitzea, errorra teknologiko eta industrialei aurre egin ahal izan diezaieten eta nazioarteko posizionamendua hobetu ahal izan dezaten.

Helburu horrekin, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu eta laguntza-programen ibilbide bat eskaintzen du, enpresa txiki eta ertainen artean berrikuntza sustatzeko eta prozesuen eraginkortasuna eta zerbitzu/produktu berrien garapena hobetuko duten proiektu berritzaileen garapena bultzatzeko. . Halaber, ETEen nazioartekotzea eta enpresa-lankidetzak sustatzen ditu, enpresa-erakundeen, klusterren eta bitarteko eragileen bidez. Arreta berezia eskaintzen zaio enplegu kualifikatua eta kalitatezkoa (startupak) sortzen duten enpresa berritzaileen sustapenari, bokazio globalarekin eta hazteko potentzialarekin, azkar haztea ahalbidetuz. . Era berean, lan egiten da barne-ekintzazailak sustatzeko, enpresa-dibertsifikaziorako eta -lehiakortasunerako duen gaitasunagatik, enpresa berriak bizkortzeko, sendotzeko eta hazteko, eta ekintzazaila-ekosistema dinamizatzeko, enpresa traktoreen eta startupen lankidetzak indartuz.

Para hacer de Bizkaia un territorio innovador y competitivo la Diputación Foral de Bizkaia presta un apoyo prioritario a la industria y los servicios avanzados por su alta capacidad generadora de riqueza y de puestos de trabajo estables y de calidad y potencia las fortalezas de los sectores que son estratégicos para Bizkaia, como la automoción, aeronáutica, energía y salud. Es fundamental, por tanto, fortalecer el sistema científico -tecnológico de Bizkaia y promover la generación, captación y transferencia de conocimiento científico-tecnológico a las empresas para que puedan afrontar los retos tecnológicos e industriales y mejorar su posicionamiento internacional.

Con esta finalidad, la Diputación Foral de Bizkaia ofrece un itinerario de servicios y programas de ayudas para fomentar la innovación entre las pymes e impulsar el desarrollo de proyectos innovadores que mejoren la eficiencia de los procesos y el desarrollo de nuevos servicios/productos. Así mismo, promueve la internacionalización de las pymes y la cooperación empresarial a través de organizaciones empresariales, clusters y agentes intermedios. Especial atención se presta a la promoción de empresas innovadoras generadoras de empleo cualificado y de calidad- startups- con vocación global desde su concepción y con potencial de crecimiento, posibilitando su rápido crecimiento. También se trabaja en el impulso del intraemprendimiento por su capacidad de diversificación y competitividad empresarial, en la aceleración, consolidación y crecimiento de nuevas empresas, así como en la dinamización del ecosistema de emprendimiento potenciando la colaboración de empresas tractoras y las startups.



BIGARRENA

Hitzarmen honen xedea da Teknologi Elkartegiari zuzeneko dirulaguntza izenduna emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea, "BIC Bizkaia Bizkaiko Parke Teknologikoan" proiektua sustatzeko 2025ean.

Bizkaiko Foru Aldundia koordinazio- eta lankidetzahalegina egiten ari da ekintzailetzako eta berrikuntzako ekosistemen esparruan, eta zerbitzuak eraginkortasunez ematen ari da, honako helburu hauekin: ezagutzan eta teknologian oinarritutako enpresen sorrera sustatzea, kultura ekintzailea sustatzea, barne-ekintzailetza bultzatzea eta gazela enpresak bizkortzeko baliabideak eta tresnak ematea.

Lankidetzak publiko-pribatuaren adibide bat Parke Teknologikoan kokatutako BIC Bizkaia inkubagailua martxan jartzea izan da. Abian jarri zenetik, inkubagailuak okupazio-maila handia izan du, eta enpresek oso balorazio ona egin dute.

HIRUGARRENA

Bizkaiko Parke Teknologikoa Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen parte da. Talentu- eta ezagutza-ekosistema horrek berrikuntzaren eta nazioartekotzearen aldeko apustua egiten du, euskal industria-politikaren protagonista. I+G enpresa-sarera transferitzeko eragile egituratzaile gisa da eta erreferente bat, aitzindaria delako eta talentua erakartzeko gaitasuna duelako, eta berrikuntza-polo garrantzitsuenetako bat bihurtu da nahiko berriak diren baina garapen ekonomikorako jada funtsezkoak diren sektoreetan, hala nola 4.0 industrian.

SEGUNDO

Este convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa nominativa al Parque Tecnológico para promover el proyecto "BIC Bizkaia en Parque Tecnológico de Bizkaia" en 2025.

La Diputación Foral de Bizkaia está realizando un esfuerzo de coordinación y colaboración en el marco de los ecosistemas de emprendimiento e innovación prestando servicios de forma eficiente con el objetivo de promover la creación de empresas basadas en el conocimiento y la tecnología, fomentar la cultura emprendedora, potenciar el intraemprendimiento y dotar de recursos y herramientas para la aceleración de empresas gacela.

Un ejemplo de esa colaboración público-privada ha sido la puesta en marcha de la incubadora BIC Bizkaia en el Parque Tecnológico. Desde su lanzamiento, la incubadora ha contado con un alto nivel de ocupación y muy buena valoración por parte de las empresas.

TERCERO

El Parque Tecnológico de Bizkaia forma parte de la Red de Parques Tecnológicos de Euskadi, un ecosistema de talento y conocimiento que apuesta por la innovación y la internacionalización como protagonistas de la política industrial vasca. Es un agente vertebrador de la transferencia de I+D al tejido empresarial y un referente por su carácter pionero y su capacidad de atracción de talento lo que le ha convertido en uno de los polos de innovación más importantes en sectores relativamente nuevos pero ya fundamentales para el desarrollo económico como la Industria 4.0.



Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak batera bultzatuta Teknologi Elkartegiak jarduerak, industria-ekimena eta -inbertsioa bultzatzea eta sustatzea du helburua, goi-mailako teknologiko enpresak ezarri ahal izateko azpiegitura sortuz, hala nola oso eduki berritzaile handiko industria-eta zerbitzu-jarduerak egitea, eta, aldi berean, teknologia eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea enpresen, eragile teknologikoen eta unibertsitateen artean, jakintza trukea eta teknologia transferentzia bideratuta, enpresa berritzaileen sorrera eta hazkundea bultzatuz eta kalitate handiko espazio eta instalazioak eta balio erantsiko zerbitzuak eskainiz.

Teknologi Elkartegia berrikuntzako eta ezagutzako eta talentuko ekosistema bat da, industriarako estrategikoak diren sektoreetan jarduten duena, hala nola aeronautikan, automobilgintzan, elikaduran, biozientzian eta osasunean, energian, fabrikazio aurreratuan, zerbitzu aurreratueta eta EIKTetan (elektronikako, informazioko eta komunikazioko teknologiak). Enpresa-berrikuntzaren eta -garapenaren eragile nagusiekin lan egiten du: erakundeak, ikerketa korporatiboko eragile eragileak, klusterrak eta enpresa-elkartek, unibertsitateak eta prestakuntza-zentroak, oinarritzko ikerketako eta bikaintasuneko zentroak, berrikuntzari laguntzeko eragileak, talentuari laguntzeko zentroak, fabrikazio aurreratuko zentroak, korporazioak eta zentro teknologikoak.

LAUGARRENA

BIC Bizkaia inkubagailu aurreratuaren ezaugarri nagusiak sektore-espezializazioa, proiektuen azelerazioa eta baliabideen erabilera partekatua dira.. Bizkaian ekintzailetasunarekin eta berrikuntzarekin lotuta dauden agenteen eta jardueren espazio biltzailea da. Hazteko ahalmen handia duten oinarri teknologikoko enpresak

Impulsado conjuntamente por el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia, el objetivo del Parque Tecnológico es estimular y promover la iniciativa y la inversión industrial, creando una infraestructura que permita la implantación de empresas de alta tecnología, junto con actividades industriales y de servicios de alto contenido innovador, y, al mismo tiempo, potenciar la transferencia de tecnología y de conocimiento entre empresas, agentes tecnológicos y universidades, impulsando la creación y el crecimiento de empresas innovadoras y ofreciendo espacios e instalaciones de gran calidad y servicios de valor añadido.

El Parque Tecnológico es un ecosistema de innovación y de conocimiento y talento que actúa en sectores estratégicos para la industria como son la aeronáutica, automoción, alimentación, biociencia y salud, energía, fabricación avanzada, servicios avanzados y TEIC's (tecnologías de electrónica, información y comunicación). Trabaja en colaboración con los principales agentes tractores de la innovación y desarrollo empresarial como instituciones, agentes tractores de investigación corporativa, clusters y asociaciones empresariales, universidades y centros de formación, de investigación básica y excelencia, agentes de apoyo a la innovación, centros de apoyo al talento, de fabricación avanzada, corporaciones y centros tecnológicos.

CUARTO

La incubadora avanzada BIC Bizkaia se caracteriza por su especialización sectorial, por la aceleración de proyectos y por la utilización compartida de recursos. Es un espacio aglutinador de agentes y de actividades relacionadas con la actividad emprendedora y la innovación en Bizkaia. Su objetivo es



sustatzea du helburu, baita jarduera ekonomiko eta enplegua handitzeko startup berriak sustatzea ere, ezagutzen eta teknologian oinarritutako enpresa-sare berritzaileari esker.

BIC Bizkaia proiektuaren testuinguruaren arabera ekintzailetasunaren ekosistemak derrigorrez behar ditu lankidetzaren, berrikuntzaren eta teknologiaren bidez eskuratzen diren ideien, proiektuen, gaitasunen, pertsonen eta kapitalen potentziala aktibatzeke eragile eta bitarteko berriak. Helbururik behinena Lurraldean jarduera ekonomiko eta enplegua sortzea dira.

Bestalde, BIC Bizkaia eraikina energia-eraginkortasuneko irizpideen arabera diseinatu dago, ingurumen-ziurtagiriekin, hondakinen kudeaketa arduratsuekin eta erabiltzaileen artean praktika jasagarriak sustatzearekin. Gizartean eta ingurumenean eragina duten irtenbideak garatzen dituzten startupek laguntzeak berrikuntza inklusiboaren eta iraunkorraren aldeko apustua indartzen du.

BOSGARRENA

Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren aldeko konpromisoari eusten dio, eta, horregatik, Ekonomia Sustatzeko Sailaren jardura guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta eta oraindik dauden desberdintasunak murrizteko neurriak finkatuta egiten dira, batez ere enpresa-munduan.

Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arau Orokorraren 7. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, foru-dirulaguntza publikoek, oro har, genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala jaso behar dituzte, bai eta berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta

promover empresas de base tecnológica con alto potencial de crecimiento y fomentar nuevas startups para aumentar la actividad económica y el empleo gracias a un tejido empresarial innovador basado en el conocimiento y la tecnología.

El proyecto BIC Bizkaia se enmarca en un contexto en el que el ecosistema de emprendimiento requiere de nuevas palancas e instrumentos que activen el potencial de ideas, proyectos, capacidades, personas y capitales de que se dispone a través de la colaboración, la innovación y la tecnología, con el fin último de generar actividad económica y empleo en el Territorio.

Por otro lado, el edificio BIC Bizkaia está diseñado bajo criterios de eficiencia energética, con certificaciones medioambientales, gestión responsable de residuos y fomento de prácticas sostenibles entre las personas usuarias. El apoyo a startups que desarrollan soluciones de impacto social y medioambiental refuerza su apuesta por un modelo de innovación inclusivo y sostenible.

QUINTO

La Diputación Foral de Bizkaia mantiene su compromiso a favor de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres y, por ello, todas las actuaciones del Departamento de Promoción Económica se desarrollan teniendo en cuenta la perspectiva de género y fijando medidas tendentes a reducir las desigualdades aún existentes, especialmente en el mundo empresarial.

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 7 de la Norma Foral 5/2005, general de subvenciones, las subvenciones públicas forales, con carácter general, deben incorporar la perspectiva de género y la perspectiva interseccional, así como



gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak ere, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa betetze aldera.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, erabakiaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan..

BIC Bizkaia proiektuak Teknologia Parkeak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin duen konpromisoa islatzen du, tradizioz maskulinizatuta egon diren teknologia-sektoreetan emakumeen ekintzailatza aktiboki sustatuz. Inkubazio- eta mentorizazio-programetan emakumeen parte-hartzea bultzatzen du, ekosistema ekintzailearen erreferente femeninoak ikusaraziz.

Euskadiko Teknologi Elkartegiak, 2023ko maiatzean, "Barne-gatazkei, lan-arloko sexu-jazarpenari, generoagatiko jazarpenari eta bestelako diskriminazio eta indarkeriei aurre egiteko jarduera-protokoloa" onartu zuen. Protokolo horretan, gerta daitekeen edozein egoera agerian jartzen duten kexei sistematikotasunez, kalitatez, konfidentziasunez eta eraginkortasunez aurre egiteko, kudeatzeko eta konpontzeko jarduketaprozedura arautzen da, eta, aldi berean, jokabide horiek prebenitzen laguntzen duten zenbait jarduera ezartzen dira. Protokolo hau Euskadiko teknologia-parkeetako langile guztiei aplikatuko zaie. Gainera, 2024ko ekainetik dago indarrean 2024-2028 aldirako II. Berdintasun Plana.

incorporar medidas para promover la igualdad y eliminar desigualdades entre mujeres y hombres con el fin de dar cumplimiento al principio de igualdad de mujeres y hombres.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este acuerdo deberán tener en cuenta la perspectiva de género.

El proyecto BIC Bizkaia refleja el compromiso del Parque Tecnológico con la igualdad de mujeres y hombres mediante la promoción activa del emprendimiento femenino en sectores tecnológicos, tradicionalmente masculinizados. Impulsa la participación de mujeres en programas de incubación y mentorización, visibilizando referentes femeninos del ecosistema emprendedor.

El Parque Tecnológico de Euskadi aprobó en mayo de 2023 un "Protocolo de actuación para el afrontamiento de conflictos internos, acoso laboral-sexual, por razón de género y otras discriminaciones y violencias", que regula el procedimiento de actuación para afrontar, gestionar y resolver con sistematicidad, calidad, confidencialidad y eficacia, las quejas que pongan de manifiesto cualquier situación de esta naturaleza que pudiera darse, al tiempo que establece una serie de actuaciones que contribuyen a la prevención de dichas conductas. Este Protocolo es de aplicación a todo el personal de los Parques Tecnológicos de Euskadi. Además, y desde junio de 2024, está vigente su II Plan de Igualdad para el periodo 2024-2028.



Hitzarmen honen izapidean sartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan aurreikusitako genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioari eta desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriei buruzko txostena. Txosten hori idazteko, Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa arautzen duen azaroaren 14ko 112/2024 Foru Dekretuan ezarritako jarraibideak aplikatu dira.

SEIGARRENA

Hitzarmena egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

ZAZPIGARRENA

Nahitaezkoa da hitzarmen honen eremua eta horretan gauzatu behar diren alderdiak zehaztea. Hori dela eta, Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2.a) artikuluan xedatuenez, zuzenean eman daitezke Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako izendun dirulaguntzak, hitzarmenetan eta dirulaguntza horien araudian ezarritakoaren arabera. 26.1. artikuluan, berriz, hitzarmen horiek dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresnak izango direla xedatu da.

Se incorpora a la tramitación de este convenio, el Informe de evaluación previa de impacto de género y medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad previsto en el artículo 20 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, en cuya redacción se han aplicado las Directrices establecidas en el Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula la evaluación previa del impacto en función del género en la Diputación Foral de Bizkaia.

SEXTO

En la elaboración del convenio se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

SÉPTIMO

Es preciso determinar el ámbito de este convenio y los aspectos que en el mismo se han de materializar ya que la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral dispone en su artículo 20.2 a) que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones, y en el artículo 26.1 establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.



Beste alde batetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegiaren (DLFAA) 50.3.artikuluaren ezarri da kasu hauetan dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena oinarri araupeztailatzat hartuko dela Dirulaguntzei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren ondoreetarako, eta egintzaren edo hitzarmenaren gutxieneko edukia zehaztu du.

Horrela, bada, arestian azaldutakoarekin bat etorritik, alderdiek erabaki dute hitzarmen hau sinatzea, zeinak klausula hauek bete behar dituen

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 50.3, prevé que en estos supuestos el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto en la Norma Foral de Subvenciones, y determina el contenido mínimo del mismo.

Así pues, de conformidad con lo anteriormente expuesto, las partes acuerdan suscribir este convenio, el cual se regirá por las siguientes

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak egin beharreko jarduketak

1. Hitzarmen honen helburua da Teknologi Elkartegiari, IFZ A48177752, zuzeneko dirulaguntza izenduna emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea "BIC Bizkaia Bizkaiko Parke Teknologikoan" proiektua garatzeko.

2. Bizkaiko Foru Aldundiak, Beaz S.A.U.-ek eta Parke Teknologikoak BIC Bizkaia inkubagailuaren kudeaketan duten lankidetzaren esparruaren barruan, Parke Teknologikoak bere gain hartzen du Bizkaiko Parke Teknologikoko 612 eraikinean inkubagailua dagoen espazioaren errentamenduaren kontratu-harremana, bai eta hornidura eta zerbitzu orokorren kudeaketa ere.

CLÁUSULAS

Primera.- Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto

1. Este convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa nominativa al Parque Tecnológico, NIF A48177752, para el desarrollo del proyecto "BIC Bizkaia en Parque Tecnológico de Bizkaia".

2. Dentro del marco de colaboración existente entre Diputación Foral de Bizkaia, Beaz, S.A.U, y el Parque Tecnológico en la gestión de la incubadora avanzada BIC Bizkaia, el Parque Tecnológico asume la relación contractual del arrendamiento del espacio donde se ubica la incubadora en el edificio 612 del Parque Tecnológico de Bizkaia y la gestión de los suministros y servicios de tipo general.



3. BIC Bizkaia proiektuaren xede nagusiak honako hauek dira:

a) Proiektuak erakartzea, inkubagailuan kokatutako enpresen artean lankidetzarako eta trakziorako proposatutako helburuak lortzeko adinako okupazio-maila lortzeko.

b) Pertsona erabiltzaileen eskura jarri diren instalazioen eta ekipamenduen egokitzapena, puntuan jartzea eta normalizazioa, hala kokatuta dauden proiektuei nola inkubagailuko bertako pertsonalari dagokienez.

4. Beraz, Teknologi Parkearen eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren helburuak eta xedeak bat datoz Bizkaian teknologiaren eta berrikuntzaren garapena modu jasangarrian sustatzeko, ezagutzaren trukea eta teknologiaren transferentzia bultzatuz. Hori dela eta, bidezkoa da Teknologi Elkartegiari dirulaguntza izendun bat ematea, 2025.ekitaldian BIC Bizkaia proiektua garatzeko. Izan ere, berrikuntza da enpresa txikiek jorratu behar duten eraldaketaren funtsezko ardatza, talentua erakartzea eta atxikitzea eta epe ertain eta luzera lehiakortasuna bermatzeko.

Azaldutako guztiak egiaztatzen du proiektu honek interes publikoa, soziala eta ekonomikoa duela, eta onura handia dakarkio Bizkaia, eta deialdi publiko bat ez erabiltzea justifikatzen du, proposatzen diren helburuak lortzeko.

3. Las principales metas del proyecto BIC Bizkaia son:

a) Captación de proyectos para lograr un nivel de ocupación suficiente para conseguir los objetivos propuestos de colaboración y tracción entre las empresas ubicadas en la incubadora.

b) Adecuación, puesta a punto y normalización de las instalaciones y equipamientos puestos a disposición de las personas usuarias, tanto de los proyectos ubicados como para el personal de la propia incubadora.

4. Existe, por tanto, una coincidencia entre los objetivos y fines del Parque Tecnológico y los del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia en promover el desarrollo tecnológico y la innovación en Bizkaia, de manera sostenible, favoreciendo el intercambio de conocimiento y la transferencia de tecnología, por lo que procede otorgar una subvención nominativa al Parque Tecnológico para el desarrollo del proyecto BIC Bizkaia durante el año 2025, al considerar que la innovación es el eje fundamental de la transformación que deben abordar las pequeñas empresas para garantizar la atracción y retención de talento y su competitividad a medio y largo plazo.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de este proyecto que reporta un gran beneficio para Bizkaia y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.



5. Dirulaguntza honen xedea ez da sexuagatiko edo martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena) jasotako diskriminazio multipleko faktoreengatiko diskriminazioa eragiten duen jarduerara.

6. Dirulaguntza honen xedea ez da tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan arau-haustetzat jotako jardunbideei aurre egiten dien, eragiten dien edo horiek onartzen dituen jarduerara edo helburua betetzea.

5. El objeto de esta subvención no constituye actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

6. El objeto de esta subvención tampoco constituye actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y no discriminación.

Bigarrena.- Erakunde onuraduna

1. Laguntzaren erakunde onuraduna Parque Tecnológico- Teknologi Elkartegia, S.A da (IFZ: A48177752).

2. Onuradunak egunean dauzka zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak keta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak.

3. Era berean, 5/2005 Foru Arauaren 12.3.bis artikulua araberak, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, abenduaren 29ko 3/2004 Legeari, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenari, lotutako irabazi-asmoa duten zuzenbide publikoko erakundeak ez diren pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako legean ezarritako ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, dirulaguntzaren onuradun izateko.

Segunda.- Entidad beneficiaria

1. La entidad beneficiaria de esta ayuda es el Parque Tecnológico- Teknologi Elkartegia, S.A., con NIF A48177752.

2. La entidad beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

3. Así mismo, de acuerdo con el artículo 12.3.bis de la Norma Foral 5/2005, para las subvenciones de importe superior a 30.000,00 euros, las personas físicas o jurídicas, distintas de las entidades de derecho público, con ánimo de lucro sujetas a la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, deberán acreditar cumplir los plazos de pago establecidos en la citada Ley para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención.



4. Teknologi Elkartegia ez dago Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako egoeraren batean, eta foru arau horren 13. artikuluan ezarritako betebeharrak guztiak bete behar ditu..

5. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekuen araginpenean, ez dago Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan aurreikusitako egoerarik, eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuaren ziozko bereizkeria dakarren jardura edo ekintza bat.

6. Halaber, erakunde onuradunari ez zaio zigor administratibo, laboral edo penalik ezarri sexuagatiko diskriminazioa egiteagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik. Era berean, ez zaio zigor administratibo edo penalik ezarri LGTBI pertsonak eta beste kolektibo batzuetako diskriminatzeagatik edo tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik.

7. Onuraduna ez da administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuta izan Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2002 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

4. El Parque Tecnológico no se encuentra incurso en ninguna de las circunstancias establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.

5. La entidad beneficiaria de la subvención no está incurso en ninguna de las prohibiciones para concurrir previstas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de mujeres y hombres, no concurre ninguna de las circunstancias previstas en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, ni el objeto de esta subvención constituye una actividad o acción discriminatoria por razón de sexo.

6. La entidad beneficiaria no ha sido sancionada administrativa, laboral o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa vigente en materia de igualdad. Tampoco ha sido sancionada administrativa o penalmente por incurrir en discriminación de las personas LGTBI y de otros colectivos o por incumplimiento de la normativa vigente de igualdad de trato y no discriminación.

7. La entidad beneficiaria no ha sido sancionada por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y no discriminación.



8. Hitzarmen hau sinatzeak esan nahi du entitate onuradunak baimena ematen duela Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan onuradunak betetzen dituela xedapen indardunek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta elkarreragingarritasunaren bidez lor daitezkeen gainerako datuak.

8. La firma de este convenio conlleva la autorización de la entidad beneficiaria para la comprobación de manera directa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y el resto de datos que puedan ser obtenidos mediante interoperabilidad.

Hirugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

1. Hitzarmen hau formalizatzen den unean jarriko da indarrean, eta hitzarmenaren ondoirozko betebeharrak betetzen direla egiaztatu arte luzatuko da haren indarraldia; formalizatzen denetik lau urteko epean aurreikusten da hori.

2. Hitzarmen honetan jasotako jarduerak gauzatzeko epea, atzeraeraginezko ondorioekin, 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artekoa izango da.

3. Dirulaguntzaren aplikazioaren justifikazioa aurkezteko epea 2026ko ekainaren 30ean amaituko da. Justifikazioa Ekonomia Sustapen Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztuko da, hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritako baldintzetan, eta hitzarmen honen ondorioz erakunde onuradunari ezarritako betebeharrei buruz araudi espezifikoak ezartzen duena alde batera utzi gabe.

Tercera.- Plazo de vigencia del convenio

1. Este convenio entrará en vigor en el momento de su formalización y su vigencia se extenderá hasta la verificación del cumplimiento de las obligaciones derivadas del mismo que se estima en un plazo de cuatro años desde su formalización.

2. El plazo para la ejecución de las actividades previstas en este convenio se fija, con carácter retroactivo, desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2025.

3. El plazo para presentar la justificación de la aplicación de la subvención finalizará el 30 de junio de 2026. La justificación se presentará a través de la oficina virtual del Departamento de Promoción Económica, en los términos establecidos en la cláusula sexta de este convenio y sin perjuicio de lo que establezca la normativa específica en relación a las obligaciones impuestas a la entidad beneficiaria como consecuencia de este convenio.

Laugarrena.- Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa ehun mila eurokoa (100.000,00€) da, hau da, baimendutako aurrekontu kredituaren guztizko zenbatekoa. Aipatu kreditua honako aurrekontu-partidaren kargura da: 0803.426106.44200, 2017/0067

Cuarta.- Obligaciones y compromisos económicos de las partes

1. La cuantía de la subvención asciende a cien mil euros (100.000,00€), que es el importe total del crédito presupuestario autorizado. Dicho crédito está designado con cargo a la partida presupuestaria 0803.426106.44200



zenbakiko proiektua: "BIC Bizkaia Bizkaiko Parke Teknologikoan" 2025. ekitaldiko aurrekontukoa.

2. Zenbateko hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren gehienezko ekarpena izango da, eta garatu beharreko jardueretarako aurreikusitako zenbatekoaren jardunetan egon daiteken gehikuntzak inoiz ez du eragingo emandako zenbatekoa gehitzea.

3. Hitzarmen hau sinatzen denean ordainduko da dirulaguntza. Ordainketa aurreratua izan arren, uste da ez dela beharrezkoa bermea eratzea, onuraduna Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren mendeko erakundea delako, eta, gainera, aurreko urteetan jarduera horretarako emandako dirulaguntzak behar bezala justifikatu dituelako beti.

4. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egindakoak, baldin eta diruz lagundutako jardueraren izaerari zailentzari gabe erantzuten badiote eta jarduera egiteko behar-beharrezkoak badira. Dena den, behar bezala justifikatuta egon behar dira, indarrean dagoen araudiarekin bat, eta hitzarmen honetan ezarritako justifikazio-aldia amaitzen den egunean ordainduta, hau da, 2026ko ekainaren 30a.

